Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko abenduaren 27a, astelehena — 246 — Lunes, a 27 de diciembre de 2021

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

6/2021 Foru Araua, abenduaren 22koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «6/2021 Foru Araua, abenduaren 22koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2021eko abenduaren 22a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia. (8273)

HITZAURREA

2020an mundua gelditu egin zen COVID-19aren pandemia iritsi zenean, eta haren eragina 2021ean ere nabaritu zen. Gaixotasunak ekarritako aldaketak bizitzaren alderdi guztietan izan zuen eragina.

Hala eta guztiz ere, badirudi aurrerapen zientifikoek eta txertoa iritsi izanak, zeina dagoeneko modu masiboan inokulatu baita Gipuzkoako biztanleen artean, pandemiaren hedapena geldiaraztea lortu dutela, eta, beraz, bai Gipuzkoa eta bai bertako herritarrak hasita daude jada gaixotasuna agertu aurreko ohiturak berreskuratzen.

2021ean Gipuzkoako Foru Aldundiak pandemiak gehien kolpatutako kolektiboak defendatzeko lan egin bazuen ere, erakundeak baikortasunez begiratzen dio 2022ari, susperraldiaren urtea izatea espero baitu. COVID-19aren hilabeterik ilunenak gaindituta daudela dirudi, eta orain susperraldiaren azeleragailua sakatzeko unea da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren legealdi honetako erronka estrategikoetako bat desberdintasunen aurkako borroka da, izan desberdintasun horiek ekonomikoak, sozialak, linguistikoak zein beste edozein eratakoak. Zehazki, Gipuzkoaren asmoa da desberdintasun tasa txikienak dituzten Europako lurraldeen artean egotea. Horrek garrantzi berezia hartzen du krisialditik irteten ari garen honetan; izan ere, pertsonek eta enpresek abiadura desberdina hartzen badute aurrera egiteko, lurraldeak beti du atzera egiteko arriskua.

Beraz, epe laburrerako erronka nagusia da susperraldi hori pertsona eta sektore guztietara zabaltzea, inor atzean utzi gabe. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak lan egingo du susperraldi ekonomikoa sektore ekonomiko guztietara eramateko, eta bere lehentasunetako bat krisiaren ondorioz gehien sufritu duten pertsonak susperraldiaren olatuan sartzea izango da.

Horrekin batera, 2022. urterako beste erronka handia susperralditik aktibaziora pasatzea izango da, Gipuzkoako etorkizuneko ekonomiaren eta gizartearen oinarriak sendotuz. Horretarako, fo-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Norma Foral 6/2021, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 6/2021, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 22 de diciembre de 2021.—El diputado general, Markel Olano Arrese. (8273)

PREÁMBULO

El mundo paró en 2020 con la llegada de la pandemia de la COVID-19, y su impacto se dejó sentir también en 2021. Todos los aspectos de la vida se vieron afectados por el cambio provocado por la enfermedad.

No obstante, los avances científicos y la llegada de la vacuna, inoculada ya de forma masiva entre la población guipuzcoana, parecen haber empezado a conseguir frenar la expansión de la pandemia y, por ende, Gipuzkoa y su ciudadanía han comenzado lentamente a recuperar hábitos previos a la aparición de la enfermedad.

Si en 2021 la Diputación Foral de Gipuzkoa trabajó con el objetivo de defender a los colectivos más golpeados por la pandemia, la institución mira a 2022 con optimismo, esperando que sea el año de la recuperación. Los meses más oscuros de la COVID-19 parecen ya superados, y es el momento de pisar el acelerador de la recuperación.

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene fijado como reto estratégico para la presente legislatura la lucha contra las desigualdades, sean estas económicas, sociales, lingüísticas o de cualquier otro tipo. En concreto, Gipuzkoa aspira a situarse entre los territorios europeos con menores tasas de desigualdad. Esto cobra especial relevancia en este periodo de salida de crisis cuando: si las personas y empresas avanzan a velocidades distintas, el territorio corre riesgo de retroceder en este sentido.

Por tanto, el reto principal a corto plazo es el de hacer extensiva esa recuperación a todas las personas y sectores, evitando dejar a nadie atrás. Así, la Diputación Foral de Gipuzkoa trabajará para llevar la recuperación económica a todos y cada uno de los sectores económicos, y sitúa entre sus prioridades el incluir en la ola de la recuperación a aquellas personas que más han sufrido por la crisis.

Junto a ello, el otro gran reto de cara a 2022 será pasar de la recuperación a la activación, consolidando las bases de la economía y sociedad guipuzcoana del futuro. Para este fin, la dipu-

EK\CV GAO-I-2021-08273

ru aldundiak oso tresna indartsua du, gobernantza ireki eta kolaboratiboan ezaugarri nagusietako bat duena: Etorkizuna Eraikiz.

Programa horren bitartez, foru aldundiak Gipuzkoako gizarte osoa inplikatu nahi du lurraldeak epe ertain eta luzera izango dituen erronka eta arazoei erantzunak bilatu eta aktibatzeko. Berrikuntza ariketa irekia eta parte-hartzailea da, egungo testuinguruan, etorkizuneko Gipuzkoa diseinatzea eta gauzatzen hastea helburu duena.

Alde horretatik, Etorkizuna Eraikiz programak inbertsio berriak planteatzen ditu Gipuzkoako hainbat aukera esparrutan, proiektu estrategiko modura; ekimen sorta bat, biharko Gipuzkoako ekonomiaren zutabe bihurtu nahi dena.

2022ko aurrekontua emaitzetara bideratutako aurrekontu baten beharkizunei jarraituz osatu da.

Emaitzetara bideratzean, aurrekontu programek adierazleak helburuekin lotzen dituzte, eta azken horiek ekintzekin eta baliabideekin. Horrenbestez, politika publikoen multzo osoa gauzatzeko oinarrizko tresna izateaz gain, aurrekontuak plangintza eta ebaluazio sistema ere badira, aurrekontuko baliabideak lortzea espero diren emaitzekin lotzen baititu, betiere efikazia, efizientzia eta gardentasuna hobetze aldera.

Ikuspuntu horrek aukera ematen du zeharkako politikak elkarrekin uztartzeko (genero berdintasuna, hizkuntza berdintasuna eta partaidetza), eta programek politika horien garapenean duten eragina adierazten du.

Indartu egiten da herritarren partaidetza, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu duen «2022ko Aurrekontu Irekiak» izeneko prozesu berria sartuta.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokor hauen helburua baliabide publikoen Kudeaketa finantzario egokia lortzea da, gastu publikoaren banaketan ahalik eta efizientziarik handiena ziurtatze aldera.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, aurrekontua % 13,08 hazi da, aurrekontu propioa % 6,00 hazi da eta Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa, termino homogeneoetan, % 14,13 hazi da.

Gastu politikei dagokienez, gizarte gastuetara eta errepide bidezko bidaiarien garraiora bideratutako kredituak zabalgarritzat hartu dira, kontuan izanik gerta daitekeela haien zuzkidura nahikoa ez izatea ekitaldian zehar agertzen diren beharrei aurre egiteko, betiere azpimarratuz borondate politikoa dela kreditu horiek zuzkitzea aurrekontu beharrak estali arte.

Izaera horretakoak dira, baita ere, hasierako aurrekontuan sartu ziren berreskuratze-, eraldaketa- eta erresilientzia-planekin eta proiektu estrategikoekin lotutako ordainketa kredituak, bai eta ekitaldian zehar sortzen direnak ere.

Lurraldearen ongizatea garatzeko udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean beharrezkoa den lankidetza kontuan hartuta, aurrekontu hauek 40,41 milioi euroko dirulaguntzak aurreikusten dituzte lurraldeko toki entitateen alde.

Aurrekontuen foru arauaren funtsezko edukia I. tituluan jasotzen da, bertan onartzen baitira foru sektore publikoaren sarrera eta gastuen egoera guztiak, eta bertan finkatzen baita, orobat, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tributuei dagozkien gastu fiskalen zenbatekoa.

Titulu horren barruan Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrekontuko sarrera eta gastuen egoera orrien zenbatekoa sartzen da, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako partzuergoena ere.

II. tituluak ezartzen du zein den Foru Aldundiaren zorpetze muga eta zenbaterainoko bermeak eman ditzakeen, eta Bidegi, SA merkataritzako foru sozietatearen zorpetze muga ere jasotzen da bertan.

tación foral cuenta con una herramienta muy potente, que hace de la gobernanza abierta y colaborativa una de sus principales características: Etorkizuna Eraikiz.

De la mano de este programa, la diputación foral aspira a involucrar a toda la sociedad guipuzcoana en la búsqueda y activación de respuestas a los retos y problemas que tendrá que afrontar el territorio a medio y largo plazo. Un ejercicio de innovación abierto y participativo que, en el contexto actual, tiene como fin diseñar y comenzar a ejecutar la Gipuzkoa del futuro.

En este sentido, Etorkizuna Eraikiz plantea una serie de nuevas inversiones en forma de proyectos estratégicos en ámbitos de oportunidad de Gipuzkoa; una serie de iniciativas que aspiran a convertirse en los pilares de la economía guipuzcoana del mañana.

El presupuesto 2022 se ha elaborado con los requerimientos de un presupuesto orientado a resultados.

En esta orientación a resultados, los programas presupuestarios asignan indicadores a los objetivos y relacionan éstos con las acciones y los recursos necesarios para su logro. Así, los presupuestos, además de ser la herramienta básica de ejecución del conjunto de políticas públicas, pasan a ser también un sistema de planificación y evaluación al relacionar los recursos presupuestarios con los resultados que se esperan obtener, permitiendo una mejora en la eficacia, en la eficiencia y en la transparencia.

Este enfoque permite la integración de las políticas transversales de igualdad de género, igualdad lingüística y participación, indicando el impacto que los programas tienen en su desarrollo.

Se da continuidad a la participación ciudadana con la inclusión del nuevo proceso de «Presupuestos Abiertos 2022», impulsado por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Estos presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa persisten en el objetivo de conseguir una buena gestión financiera de los recursos públicos, asegurando una máxima eficiencia en la distribución del gasto público.

Respecto al ejercicio anterior, el presupuesto crece un 13,08 %, el presupuesto propio crece un 6,00 % y el Fondo Foral de Financiación Municipal, en términos homogéneos, crece un 14,13 %.

Con relación a las políticas de gasto, han sido calificados como ampliables aquellos créditos destinados a gasto social y de transporte de viajeros por carretera, y en previsión de que la dotación pueda resultar insuficiente para cubrir las necesidades a lo largo del ejercicio, expresando la voluntad política de dotar dichos créditos hasta cubrir las necesidades presupuestarias.

También tienen esta consideración, los créditos de pago vinculados a los planes de recuperación, transformación y resiliencia y a los proyectos estratégicos incluidos en el presupuesto inicial, así como los que se creen a lo largo del ejercicio.

Atendiendo a la necesaria colaboración entre los ayuntamientos y la Diputación Foral de Gipuzkoa para el desarrollo del bienestar de este territorio, estos presupuestos contemplan subvenciones a los entes locales del territorio por una cuantía de 40,41 millones de euros.

El contenido esencial de la norma foral de presupuestos se recoge en el título I, donde se aprueban la totalidad de los estados de ingresos y gastos del sector público foral y se consigna el importe de los gastos fiscales que afectan a los tributos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se incluye en este título el importe de los estados de gastos e ingresos de los presupuestos de las Juntas Generales de Gipuzkoa, así como de los consorcios adscritos a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El título II establece el límite de endeudamiento y de prestación de garantías de la Diputación Foral y el límite de endeudamiento de la sociedad mercantil foral Bidegi, SA.

EK\CV GAO-I-2021-08273

III. tituluan jasota daude 2022ko ekitaldian zehar aurrekontu kredituen araubide orokorrak eta haien aldaketenak izango dituzten berezitasunak. Zehazki, hauek: araubide orokorraren salbuespenak kredituen izaera mugatzaileari dagokionez; kreditu zabalkorren kontsiderazioa; konpromiso kredituak sortu eta banatzeko gehieneko muga; kreditu gaikuntzen eta txertaketen berezitasunak.

IV. tituluan aurrekontu Kudeaketaren inguruko hainbat arau jasotzen dira (dirulaguntzenak, proiektu kofinantzatuenak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren berreskuratze-, eraldaketa- eta erresilientzia-planekin eta proiektu estrategikoekin lotutako funtsen Kudeaketa, gastuaren exekuzioa mugatzekoak, eta egindako gastuaren udalerrikako banaketari buruzkoak), bai eta Batzar Nagusiei eta foru sektore publikoko gainerako entitateei transferentziak egiteko araubidea ere.

V. tituluak bi kapitulu ditu. Lehenengoan jorratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko eta foru organismo autonomoetako langileen eta pasiboen kredituei aplikatzen zaien araubidea, aurrekontu plantillaren osaera zehazten da, eta zehaztasun handiagoz arautzen dira aurrekontuetako lehen kapituluari ezartzen zaizkion mugak.

Bigarren kapituluan, berriz, foru sektore publikoko gainerako entitateen plantillaren osaera eta langileria gastuak gehitzeko muga arautzen dira.

VI. tituluan, lurralde historikoko udalen finantzaketa ezartzen da.

VII. tituluan arautzen da Foru Aldundiak aldian-aldian Batzar Nagusietara bidali behar duen informazioa.

Foru arauaren edukia osatzeko, hainbat xedapen ematen dira: gehigarriak, iragankorrak, eta amaierakoak. Horietan askotariko aginduak jasotzen dira.

Xedapen gehigarri gisa gehitu dira honako hauei buruzko ohiko aurreikuspenak: berandutze-interesa, tasen, katastro-balioen eta autobideak erabiltzeko kanonaren eguneratzea, tokikorporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztea, kreditu gehigarriak eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU erakundeari maileguak emateko baimena. Gainera, berritasun gisa, zortzigarren xedapen gehigarri bat erantsi da: 17. artikuluan aipatzen diren berreskuratze-, eraldaketa- eta erresilientzia-planei lotutako funtsen Kudeaketarako hitzarmenen izapideak sinplifikatzeari buruzkoa.

Xedapen iragankorretan, berriz, arau osagarri batzuk arautzen dira aurrekontuen Kudeaketari buruz. Izan ere, aurreko ekitaldietako aurreikuspenari eusten zaio, alegia, egoera jakin batzuetan aurrekontuaren egokitzapen teknikoak egiteko aukerari eta Ogasun eta Finantza Departamentuak kontabilitate saldoak arazteko aukerari.

Azkenik, amaierako xedapenak jasotzen dira. Lehenengo hiruretan hiru foru arau hauek aldatzen dira: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duen azaroaren 23ko 15/1994 Foru Araua, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua. Eta azkeneko hirurak erregelamenduzko garapenari, aplikazio eremuari eta foru araua bera indarrean jartzeari buruzkoak dira.

I. TITULUA

AURREKONTUEN ONARPENA, EREMU SUBJEKTIBOA ETA EDUKIA

1. artikulua. Aurrekontuak onartzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2022. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dira, foru arau honetan ezarritako eran.

En el título III se regulan las especificidades a aplicar durante el ejercicio 2022 al régimen general de los créditos presupuestarios y de sus modificaciones. En concreto, las excepciones al régimen general del carácter limitativo de los créditos, la consideración de créditos ampliables, el límite máximo de creación y redistribución de créditos de compromiso, las especificidades de las habilitaciones e incorporaciones de crédito.

El título IV recoge aquellas normas relativas a la gestión presupuestaria en materia de subvenciones, proyectos cofinanciados, gestión de los fondos vinculados a los planes de recuperación, transformación y resiliencia y a los proyectos estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, limitación a la ejecución del gasto, municipalización del gasto realizado, así como al régimen de transferencias a las Juntas Generales y al resto de entidades del sector público foral.

El título V se desglosa en dos capítulos. El primero, está dedicado al régimen de los créditos de personal y de pasivos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de los organismos autónomos forales, concreta la composición de la plantilla presupuestaria y regula de forma más precisa las limitaciones al capítulo primero de los presupuestos.

El segundo capítulo regula la composición de la plantilla y las limitaciones al aumento de gastos de personal del resto de las entidades del sector público foral.

El título VI establece la financiación de los municipios del territorio histórico.

El título VII regula la información periódica que debe remitir la Diputación Foral a las Juntas Generales.

El contenido de la norma foral se completa con diversas disposiciones adicionales, transitorias y finales, en las que se recogen preceptos de índole muy variada.

Se incorporan como disposiciones adicionales las habituales relativas al interés de demora, a la actualización de las tasas, de los valores catastrales y del canon de utilización de autopistas, a la determinación de los límites máximos de las retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales, a los créditos adicionales y a la autorización para la concesión de préstamos a la entidad Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU. Además, se añade como novedad, una octava disposición adicional que aborda la simplificación en la tramitación de los convenios para la gestión de los fondos vinculados a los planes de recuperación, transformación y resiliencia a que se refiere el artículo 17.

En las disposiciones transitorias se regulan una serie de normas complementarias en relación con la gestión presupuestaria: se mantiene la previsión de ejercicios anteriores de que en determinadas circunstancias se puedan realizar adaptaciones técnicas del presupuesto y de que por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas se puedan realizar depuraciones de saldos contables.

Finaliza con las disposiciones finales. En las tres primeras se modifica la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Norma Foral 15/1994, de 23 de noviembre, reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal y la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Y las tres últimas se dedican al desarrollo reglamentario, al ámbito de aplicación y a la entrada en vigor de la propia norma foral.

TÍTULO I

DE LA APROBACIÓN, ÁMBITO SUBJETIVO Y CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS

Artículo 1. Aprobación.

Se aprueban los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2022 en los términos establecidos en la presente norma foral.

EK\CV GAO-I-2021-08273

2. artikulua. Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren eremua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2022. urterako aurrekontu orokorrak honela daude osatuta:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontua.

b) Uliazpi Fundazioa eta Kabia foru organismo autonomoen aurrekontuak.

c) Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA, Etorlur Gipuzkoako Lurra SA eta Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea SA (Izfe) merkataritzako foru sozietateen aurrekontuak.

d) Foru fundazioen aurrekontuak:

— Kirolgi Fundazioa.

— Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa.

— Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa.

— Ziur Fundazioa.

— Fundación Adinberri Fundazioa.

— MUBIL Fundazioa.

3. artikulua. Aurrekontu orokorren edukia.

1. Ordainketa kredituak eta sarrera bateratuen egoera 5.803.897.913,98 euro izango dira 2022ko ekitaldian, I. eranskinean laburtutakoaren arabera.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuko gastuen egoera 5.620.139.005,00 euro da ordainketa krediturei dagokienez, eta 297.965.495,00 euro, berriz, konpromiso krediturei dagokienez; II-I. eranskinean jasotzen da nola banatzen diren 2022tik aurrerako aurrekontu ekitaldietan.

Aurrekontu propioaren kasuan, gastuen egoera 1.041.817.353,00 euro da. Aurrekontu propioa lortzeko, aurrekontu osoari kendu egiten zaizkio Estatuarentzako kupoa, Finantzen Euskal Kontseilutik ondorioztatutako ekarpenak eta Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa ordaintzeko kredituak.

Foru Aldundiaren aurrekontuko sarreren egoera 5.620.139.005,00 euro da, haren barruan sartuta diruzaintzako gerakina (35.790.494,00 euro).

3. Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoaren aurrekontuko gastuen egoera 21.828.000,00 euro da eta 82.000,00 euro, berriz, konpromiso krediturei dagokienez; II-II eranskinean jasotzen da nola banatzen diren 2022tik aurrerako aurrekontu ekitaldietan.

Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoaren aurrekontuko sarreren egoera 21.828.000 euro da.

4. Kabia foru organismo autonomoaren aurrekontuko gastuen egoera 63.503.094,00 euro da.

Kabia foru organismo autonomoaren aurrekontuko sarreren egoera 63.503.094,00 euro da.

5. Merkataritzako foru sozietateen gastu aurrekontuen zenbatekoa 198.573.687,95 euro da, eta banaketa hau du:

— Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea SA (Izfe): 40.465.089,00 euro.

— Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA: 156.953.321,00 euro.

— Etorlur Gipuzkoako Lurra SA: 1.155.277,95 euro.

Sozietate horien baliabide zenbatetsiak eta haietako bakoitzarentzat onartutako zuzkidurak berdinak dira.

Artículo 2. Ámbito de los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Integran los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2022:

a) El presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Los presupuestos de los organismos autónomos forales Fundación Uliazpi y Kabia.

c) Los presupuestos de las sociedades mercantiles forales Bidegi Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, SA, Etorlur Gipuzkoako Lurra SA, y Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA (Izfe).

d) Los presupuestos de las fundaciones forales:

— Kirolgi Fundazioa.

— Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa.

— Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa.

— Ziur Fundazioa.

— Fundación Adinberri Fundazioa.

— MUBIL Fundazioa.

Artículo 3. Contenido de los presupuestos generales.

1. Los créditos de pago así como el estado de ingresos consolidados alcanzan para el ejercicio 2022 el importe de 5.803.897.913,98 euros, según el resumen que se recoge en el anexo I.

2. El estado de gastos del presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa asciende, en cuanto a créditos de pago, a la cantidad de 5.620.139.005,00 euros; y en cuanto a créditos de compromiso, a la cantidad total de 297.965.495,00 euros, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores al 2022 se detalla en el anexo II-I.

El estado de gastos del presupuesto propio, siendo este el presupuesto total menos los créditos destinados al pago del cupo al Estado, a las aportaciones derivadas del Consejo Vasco de Finanzas y al Fondo Foral de Financiación Municipal, asciende a la cantidad de 1.041.817.353,00 euros.

El estado de ingresos del presupuesto de la Diputación Foral asciende a 5.620.139.005,00 euros, incluyendo remanente de tesorería, por un importe de 35.790.494,00 euros.

3. El estado de gastos del presupuesto del organismo autónomo foral Fundación Uliazpi asciende a la cantidad de 21.828.000,00 euros y, en cuanto a créditos de compromiso, a la cantidad total de 82.000,00 euros, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores al 2022 se detalla en el anexo II-II.

El estado de ingresos del presupuesto del organismo autónomo foral Fundación Uliazpi asciende a 21.828.000 euros.

4. El estado de gastos del presupuesto del organismo autónomo foral Kabia asciende a la cantidad de 63.503.094,00 euros.

El estado de ingresos del presupuesto del organismo autónomo foral Kabia asciende a 63.503.094,00 euros.

5. Los presupuestos de gastos de las sociedades mercantiles forales alcanzan la cuantía de 198.573.687,95 euros, cuyo desglose es el siguiente:

— Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA (Izfe): 40.465.089,00 euros.

— Bidegi Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SA: 156.953.321,00 euros.

— Etorlur Gipuzkoako Lurra SA: 1.155.277,95 euros.

Los recursos estimados de las citadas sociedades ascienden al mismo importe que las dotaciones aprobadas para cada sociedad.

EK\CV GAO-I-2021-08273

6. Foru fundazioen gastu aurrekontuen zenbatekoa 15.556.384,55 euro da, eta banaketa hau du:

— Kirolgi Fundazioa: 3.948.656,00 euro.

— Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa: 1.230.851,03 euro.

— Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa: 1.332.010,00 euro.

— Ziur Fundazioa: 1.132.600,00 euro.

— Fundación Adinberri Fundazioa 954.582,06 euro.

— MUBIL Fundazioa: 6.957.685,46 euro.

Fundazio horien baliabide zenbatetsiak eta haietako bakoitzarentzat onartutako zuzkidurak berdinak dira.

4. artikulua. Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrak hartzen dituen aurrekontuak.

1. Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrekontuaren sarreren eta gastuen egoera orria jasotzen da, 7.593.800,00 eurokoa eta konpromisozko kredituei dagokienez, 75.300,00 eurokoa.

2. Partzuergo hauen aurrekontuak jasotzen dira:

— Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren aurrekontu kontsolidatuaren egoera orrian 54.242.000,00 euro jasotzen dira, bai diru sarrerei bai gastuei dagokienez.

— Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren aurrekontu kontsolidatuaren egoera orrian 52.255.597,00 euro jasotzen dira, bai diru sarrerei bai gastuei dagokienez.

— Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren aurrekontuaren egoera orrian 5.773.448,00 euro jasotzen dira, bai diru sarrerei bai gastuei dagokienez.

— Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoaren aurrekontuaren egoera orrian 399.829,01 euro jasotzen dira, bai diru sarrerei bai gastuei dagokienez.

5. artikulua. Tributuei dagozkien gastu fiskalak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko tributuei dagozkien gastu fiskalak 2.218.313.850,01 eurotan zenbatetsi dira.

II. TITULUA

GEHIENEKO ZORPETZE MAILA ETA BERMEAK EMATEKO MUGA

6. artikulua. Abalen muga.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 109.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Foru Aldundiak Bidegi SAri emandako abalak ezin izango dira izan, 2022ko abenduaren 31n, 256.056.999,99 eurotik gorakoak.

7. artikulua. Foru Aldundiaren zorpetze muga.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren epe luzerako zorpetze eragiketen saldo bizia, eragiketak dokumentatzeko era zeinahi dela ere, ezin izango da izan, 2022ko abenduaren 31n, 496.030.000,00 eurotik gorakoa.

2. 2022. urtean zehar, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak egoki deritzen zorpetze eragiketak egin ahal izango ditu diruzaintzaren unean uneko beharrei erantzuteko, edozein eratan dokumentatuta eta urtebeterako gehienez.

6. Los presupuestos de gastos de las fundaciones forales alcanzan la cuantía de 15.556.384,55 euros, cuyo desglose es el siguiente:

— Kirolgi Fundazioa: 3.948.656,00 euros.

— Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa: 1.230.851,03 euros.

— Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa: 1.332.010,00 euros.

— Ziur Fundazioa: 1.132.600,00 euros.

— Fundación Adinberri Fundazioa: 954.582,06 euros.

— MUBIL Fundazioa: 6.957.685,46 euros.

Los recursos estimados de las citadas fundaciones ascienden al mismo importe que las dotaciones aprobadas para cada fundación.

Artículo 4. Presupuestos que acompañan a los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1. Se acompaña el presupuesto de las Juntas Generales de Gipuzkoa que asciende tanto en el estado de ingresos como en el de gastos a 7.593.800,00 euros y, en cuanto a créditos de compromiso, a la cantidad total de 75.300,00 euros.

2. Se acompañan los presupuestos de los siguientes consorcios:

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa que asciende su presupuesto consolidado, tanto en el estado de ingresos como en el de gastos a 54.242.000,00 euros.

— Consorcio de Residuos de Gipuzkoa que asciende su presupuesto consolidado, tanto en el estado de ingresos como en el de gastos a 52.255.597,00 euros.

— Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa que asciende su presupuesto, tanto en el estado de ingresos como en el de gastos a 5.773.448,00 euros.

— Consorcio de Innovación Lingüística Badalab que asciende su presupuesto, tanto en el estado de ingresos como en el de gastos a 399.829,01 euros.

Artículo 5. Gastos fiscales que afectan a los tributos.

Los gastos fiscales que afectan a los tributos del Territorio Histórico de Gipuzkoa se estiman en 2.218.313.850,01 euros.

TÍTULO II

DEL LÍMITE DE ENDEUDAMIENTO Y DE PRESTACIÓN DE GARANTÍAS

Artículo 6. Límite de los avales.

A efectos de lo dispuesto en el artículo 109.1 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, los avales concedidos a Bidegi, SA por la Diputación Foral no podrán exceder a 31 de diciembre de 2022 de la cantidad de 256.056.999,99 euros.

Artículo 7. Límite de endeudamiento de la Diputación Foral.

1. El saldo vivo de las operaciones de endeudamiento a largo plazo de la Diputación Foral, cualquiera que sea la forma en que se documenten, no podrá exceder a 31 de diciembre de 2022 de la cantidad de 496.030.000,00 euros.

2. Durante el ejercicio 2022, el diputado foral de Hacienda y Finanzas podrá realizar las operaciones de endeudamiento que estime necesarias para atender dificultades momentáneas de tesorería, en cualquiera de las formas en que se documenten y por un plazo no superior a un año.

EK\CV GAO-I-2021-08273

8. artikulua. Bidegi SA merkataritza foru sozietatearen zorpetze muga.

Bidegi, SA sozietatearen epe luzerako zorpetze eragiketen saldo bizia, eragiketak dokumentatzeko era zeinahi dela ere, ezin izango da izan, 2022ko abenduaren 31n 544.173.214,48 eurotik gorakoa.

III. TITULUA

AURREKONTU KREDITUAK ETA HORIEN ALDAKETAK

9. artikulua. Foru Aldundiaren eta foru organismo autonomoen aurrekontu kredituak.

Gastuen egoera orriko kredituak erabiliko dira aurrekontuetan eta martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren III. tituluaren III. kapituluari eta foru arau honi jarraituz onartutako aldaketetan baimendutako helburuak betetzeko.

10. artikulua. Kredituen lotura.

1. 2022ko ekitaldian, ordainketa kredituak mugatzaileak izango dira, martxoaren 27ko 4/2007 Foru Araua, 51.2 artikuluan jasotakoaren arabera. Salbuespen bakarrak ondorengo apartatuetan ezarritakoak dira.

2. Mugatzaileak izango dira gastu egoeran duten desagregazio mailarekin honako hauek:

a) Foru arau honen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera zabalgarritzat hartutako kredituak, salbu honako hauek: 1. apartatuko a) letran jasotakoak, mugatzaileak izango baitira kapitulu mailan; eta b) eta c) letretan jasotakoak, kapitulu eta programa mailan izango baitira mugatzaileak.

b) Konpromiso kredituei dagozkien ordainketa kredituak, artikulu honen 3. apartatuaren a) eta c) letretan jasotakoa eragotzi gabe.

c) Ekitaldiaren barruan onartzen diren kreditu gehigarriak.

d) Aurreko ekitaldietatik txertatutako kredituak.

e) Foru organismo autonomoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak finantzatzearren Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuan izendatzen diren kredituak, eta haien zerbitzuak ordaintzeko erabiltzen diren kredituak.

f) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 20.3.c) artikuluan jasotakoaren arabera zuzenean eman daitezkeen dirulaguntzei dagozkien kredituak.

g) Finantzaketa lotuko gastuei dagozkien kredituak, artikulu honen 3.a) apartatuan jasotakoa eragotzi gabe.

h) Beren izaera, garrantzi edo xede bereziagatik, berariazko zehaztapen maila behar duten kredituak, Ogasun eta Finantza Departamentuak hala erabakitzen duenean.

3. Mugatzaileak izango dira kapitulu eta programa mailan:

a) Proiektu kofinantzatu bereko ordainketa kredituak.

b) II. kapituluan (ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak) sartutako kredituak.

c) Dirulaguntza lerro bereko laguntzak finantzatzera bideratutako kredituak.

d) Bere izaera bereziagatik edo xedeagatik Ogasun eta Finantza Departamentuak erabakitzen dituen kredituak.

4. Konpromiso kredituak erregulatuko dira lotuak dituzten ordainketa kredituei titulu honetan aplikagarri zaizkien arauen arabera.

Artículo 8. Límite de endeudamiento de la sociedad mercantil foral Bidegi, SA.

El saldo vivo de las operaciones de endeudamiento a largo plazo de Bidegi, SA, cualquiera que sea la forma en que se documenten, no podrá exceder a 31 de diciembre de 2022 de la cantidad de 544.173.214,48 euros.

TÍTULO III

DE LOS CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS Y DE SUS MODIFICACIONES

Artículo 9. Créditos presupuestarios de la Diputación Foral y de los organismos autónomos forales.

Los créditos del estado de gastos se destinarán al cumplimiento de las finalidades para las que fueron autorizados en los presupuestos y en las modificaciones aprobadas conforme a lo previsto en el capítulo III del título III de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, y en la presente norma foral.

Artículo 10. Vinculación de los créditos.

1. Durante el ejercicio 2022, los créditos de pago tendrán carácter limitativo conforme a lo previsto en el artículo 51.2 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, con las excepciones previstas en los apartados siguientes.

2. Tendrán carácter limitativo con el nivel de desagregación con que aparezcan en el estado de gastos:

a) Los créditos declarados ampliables conforme a lo establecido en el artículo 11 de esta norma foral, con excepción de los previstos en la letra a) del apartado 1, que tendrán carácter limitativo a nivel de capítulo; y los previstos en las letras b) y c), que tendrán carácter limitativo a nivel de capítulo y programa.

b) Los créditos de pago correspondientes a créditos de compromiso, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3 letras a) y c) de este artículo.

c) Los créditos adicionales aprobados durante el ejercicio.

d) Los créditos incorporados de ejercicios anteriores.

e) Los créditos del presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa que tengan como destino la financiación de los organismos autónomos forales, de las sociedades mercantiles forales y de las fundaciones forales, así como los créditos destinados al pago de los servicios que efectúen.

f) Los créditos correspondientes a subvenciones que puedan concederse de forma directa, conforme a lo previsto en el artículo 20.3.c) de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

g) Los créditos correspondientes a gastos con financiación afectada, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3.a) de este artículo.

h) Aquellos créditos que por su especial carácter, relevancia o destino requieran un nivel de concreción específica, y así se determine por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

3. Tendrán carácter limitativo a nivel de capítulo y programa:

a) Los créditos de pago correspondientes a un mismo proyecto cofinanciado.

b) Los créditos incluidos en el capítulo II –gastos corrientes en bienes y servicios–.

c) Los créditos destinados a financiar subvenciones de una misma línea subvencionable.

d) Aquellos créditos que por su especial carácter o destino determine el Departamento de Hacienda y Finanzas.

4. Los créditos de compromiso se regirán por las reglas del presente título aplicables a los créditos de pago a los que estén afectados.

EK\CV GAO-I-2021-08273

11. artikulua. Kreditu zabalgarriak.

1. Martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 53. artikuluan xedatzen duenez, zabalgarritzat hartzen dira Foru Aldundiaren eta foru organismo autonomoen aurrekontuetan jasotzen diren kreditu hauek:

a) I. kapituluko gastuak (langileria gastuak), xedapen aplikagarrietan jasotakoaren arabera, eta foru arau honen V. tituluan ezarritako mugekin.

b) Interesak, zenbateko nagusiaren amortizazioa, eta zorpetze gastuak ordaintzeko bideratutakoak.

c) Estatuari kupoa ordaintzeko, Euskal Autonomia Erkidegoari diru ekarpena egiteko, edo tributu itunduen bilketan parte hartzeagatik lurralde historikoko udalerriek jaso beharrekoa ordaintzeko izendatutako zenbatekoak.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiak abalatutako kreditu eragiketetan izan diren galerek eragindako diru betebeharrak ordaintzeko diren kredituak.

e) Batzar Nagusien eta foru organismo autonomoen aurrekontuak finantzatzeko bideratutako kredituak.

f) Europar Batasunarekin batera finantzatutako jarduketetarako izendatutako kredituak.

g) Langileei ordainsarien aurrerakinak emateko bideratutako kredituak.

h) Beste eskumen batzuk bereganatzearen ondorio diren kredituak.

i) Lurralde historikoko aurrekontu orokorren eranskin numerikoetan berariaz adierazten diren kredituak.

j) Berreskuratze, eraldatze eta erresilientzia planei eta proiektu estrategikoei dagozkien kredituak, foru arau honen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Gizarte Politiketako Departamentuak aldizkako prestazio ekonomikoen programaren barruan familiei egiten dizkien transferentziak zabalgarriak dira, prestazio mota bakoitzaren berariazko araudiaren aplikaziotik eratorritako diru beharren arabera.

3. Finantza eta Aurrekontuetako zuzendariak aurrekontuko kreditu bati izaera zabalgarria kendu diezaioke, betiere aurrekontua gauzatzeko hala komeni bada.

12. artikulua. Konpromiso kredituak sortu eta birbanatzeko gehieneko muga.

1. Diputatuen Kontseiluak, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak proposaturik, eta ukitutako departamentuaren edo foru organismo autonomoen ekimenez, konpromiso kreditu berriak onar ditzake, betiere haiek ez badira aplikatzen 4 ekitalditan baino gehiagotan, eta haien zenbateko osoak ez badu gainditzen foru arau honetan onartutako konpromiso kredituen % 10, foru arau honen 17. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Diputatuen Kontseiluak erabaki dezake, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak proposaturik eta eragindako departamentuaren edo foru organismo autonomoaren ekimenez, konpromiso kredituen artean transferentziak egitea edo horien urteko zenbatekoak birbanatzea 4 urteko epe mugarekin, betiere haien zenbateko osoa ez bada handiagoa foru arau honetan onartutako konpromiso kredituen % 10 baino, foru arau honen 17. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Pertsona fisikoek edo juridikoek urte anitzeko gastuak finantzatzeko egiten dituzten ekarpenak ez dira konputatuko aurreko apartatuetan jarritako mugen ondorioetarako.

13. artikulua. Kreditu gaikuntzak.

1. Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Arauak 58.8 artikuluan jasotakoaren arabera, gastu aurrekontuan gaikuntzak egin ahal izango dira beste sarrera batzuen kargura, zerga itun-

Artículo 11. Créditos ampliables.

1. Conforme al artículo 53 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, se consideran ampliables los siguientes créditos incluidos en los presupuestos de la Diputación Foral y de los organismos autónomos forales:

a) Los gastos del capítulo I –gastos de personal– según lo establecido en las disposiciones aplicables y con las limitaciones establecidas en el título V de esta norma foral.

b) Los que se destinen al pago de intereses, amortización de principal y gastos derivados del endeudamiento.

c) Las cantidades consignadas para el pago del cupo al Estado, aportación a la Comunidad Autónoma del País Vasco y aportación a los municipios del territorio histórico por su participación en la recaudación de tributos concertados.

d) Los créditos destinados al pago de las obligaciones derivadas de quebrantos en operaciones de crédito avaladas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

e) Los créditos destinados a financiar el presupuesto de las Juntas Generales y el de los organismos autónomos forales.

f) Los créditos correspondientes a actuaciones cofinanciadas por la Unión Europea.

g) Los créditos destinados a la concesión de anticipos de remuneraciones al personal.

h) Los que sean consecuencia de la asunción de nuevas competencias.

i) Los que se señalen expresamente en los anexos numéricos de los presupuestos generales del territorio histórico.

j) Los créditos correspondientes a los planes de recuperación, transformación y resiliencia y a los proyectos estratégicos, conforme a lo dispuesto en el artículo 17 de esta Norma Foral.

2. Las transferencias a familias del programa de prestaciones económicas periódicas del Departamento de Políticas Sociales son ampliables en función de las necesidades económicas derivadas de la aplicación de la normativa específica de cada tipo de prestaciones.

3. El director general de Finanzas y Presupuestos podrá eliminar el carácter de ampliable de un crédito presupuestario, siempre que la ejecución del presupuesto así lo aconseje.

Artículo 12. Límite máximo de creación y redistribución de créditos de compromiso.

1. El Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, y a iniciativa del departamento afectado o de los organismos autónomos forales, podrá aprobar nuevos créditos de compromiso, siempre que el número de ejercicios a que se apliquen no sea superior a 4 años, y siempre que su importe total no sobrepase el 10 % de los créditos de compromiso aprobados en la presente norma foral; sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 17 de esta Norma Foral.

2. El Consejo de Gobierno Foral, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, y a iniciativa del departamento afectado o de los organismos autónomos forales, podrá aprobar transferencias entre créditos de compromiso, así como la redistribución de sus anualidades con el límite temporal de 4 años, siempre que su importe total no sobrepase el 10 % de los créditos de compromiso aprobados en la presente norma foral sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 17 de esta Norma Foral.

3. Las aportaciones de las personas físicas o jurídicas para financiar gastos de carácter plurianual no computarán a efectos de las limitaciones establecidas en los apartados anteriores.

Artículo 13. Habilitaciones de crédito.

1. De conformidad con lo previsto en el artículo 58, apartado 8, de la Norma Foral de Régimen Financiero y Presupuestario, se podrán efectuar habilitaciones en el presupuesto de

EK\CV GAO-I-2021-08273

duak barne, betiere sarrera aurrekontuaren exekuzioaren arabera aurreikusi badaiteke ekitaldiaren amaieran hasierako aurreikuspenak gaindituko direla. Gaikuntza horien helburua izango da:

a) Estatuari kupoa ordaintzea, Euskal Autonomia Erkidegoari diru ekarpena egitea edo tributu itunduen bilketan parte hartzeagatik Gipuzkoako udalerriek jaso beharreko ekarpena ematea.

b) Interesak, zenbateko nagusiaren amortizazioa edo zorpetzeak eragindako bestelako gastuak ordaintzea.

c) Ohiz kanpoko izaerako giza gastua.

2. Gaikuntza horiek ez dira konputatuko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 58. artikuluaren 11. apartatuan jasotako mugaren ondorioetarako.

3. Berreskuratze, eraldaketa eta erresilientzia planei eta proiektu estrategikoei lotutako funtsak kudeatzeko kreditu gaikuntzak foru arau honen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

14. artikulua. Kreditu txertaketak.

Martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 59. artikuluaren 2. apartatuan jasotako salbuespenaren arabera, 2022ko ekitaldian txertatu ahal izango dira 2021ean txertatutako kreditu gerakinak, baldin eta haien obligazioa ekitaldi horren barruan onartu ez bada, eta konprometituta badaude.

IV. TITULUA

AURREKONTUAREN KUDEAKETA

15. artikulua. Dirulaguntzak.

Diputatu nagusiak eta foru diputatuek martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 20.3.c) artikuluan aipatzen diren laguntzak eman ditzakete, nork bere departamentuko aurrekontuaren kargura, betiere 15.000,00 euroko zenbatekoa gainditu gabe.

16. artikulua. Proiektu kofinantziatuak.

Beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek osorik edo zati batean finantzatutako gastu proiektuak behar bezala identifikatuta egongo dira hasierako aurrekontuan edo kreditu aldaketarako espedienteetan. Era berean, finantzaketa bideak zeintzuk diren adierazi beharko da berariaz.

Kredituen finantzaketari lotutako baliabideen aurreikuspena hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa denean, aurrekontuko gastu egoeretan kreditu atxikipenak egitea erabaki dezake Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiak.

17. artikulua. Berreskuratze-, eraldaketa- eta erresilientzia-planei eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektu estrategikoei lotutako funtsen Kudeaketa.

